

Agerkaria

7 zenbakia - 2004ko iraila

Aurkibidea

- 1 Euskera en 20 comprimidos
- 2 Bizkaian zehar kantetan /Euskarazko irakaskuntza urtean-urtean sendoago
- 3 Euskara teknikari eta zinegotzientzako trebakuntza ikastaroa
- 4 Laburrean

Euskera en 20 comprimidos

Euskaraz egin nahi baduzu... Euskaltegian noski

Iaz legez, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak kanpaina zabaldu du helduen euskalduntze eta alfabetatzea sustatu guran.

Euskera en 20 comprimidos izeneko kanpaina honetan euskara ikastearen garrantzia azpimarratzeaz gain, non eta noiz ikas dezakegun adierazten da.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arloan dagoen eskaintzaren berri emateko kanpaina antolatu du HABEK eta Alkarbidek bere gain hartu du Bizkaian material hori banatzeko ardura.

HABEK prestatutako materiala euskarriztat hartu eta udalerrian dauden euskaltegien gaineko informazioa -ordutegiak, tarifak- emateko aukera izan dute euskara zerbitzuek. Euskaltegiei buruzko argibideekin batera, euskalduntze alfabetatzeari buruzko zenbait aholku ere agertzen dira HABEK banatutako liburuxketan.

Aipatu, bestalde, udalerrri bakoitzerako moldatutako liburuxkez gain, irailaren erdialdetik aurrera, komunikabideetan kanpaina ikusteko aukera izan dugula.





Bizkaian zehar kantetan



Mendealde kultura alkarteak gertatu duen *Bizkaian Zehar Kantetan* ikas-materiala argitaratu berri du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Hiru euskarrik osatzen dute bilduma: GIDA LIBURUA, ARIKETA LIBURUA eta CDa. Bildumak Bizkaiko hainbat herritan jasotako kantak eta errezitatuak dakartza, modu didaktikoan prestatuta, eskolan erabiltzeko beren-beregiko materiala da eta.


Euskarazko irakaskuntza urtean-urtean sendoago

Sei bat hilabete joan dira 2 eta 3 urteko umeen aurre-matrikulazioari buruzko EUSKARAZKO ESKOLA AUKERAKOENA informazio-kanpaina zabaldu zenetik Bizkaiko hainbat herritan, ALKARBIDE bilgunearen eskutik. Egunotan, eskola hasteaz batera, 2004-2005 ikasturtean derrigorrezko hezkuntzan arituko diren ikasle-kopuru eta ikas-ereduen gaineko datuak plazaratu ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak.

Datu horien arabera, 3 eta 18 urte bitarteko ikasle guztietatik, erdiak baino gehiagok euskara hutsean ikasiko du, hots, D ereduan. B eta D batuz gero, ikasleen %73,40 arituko dira euskarazko ereduatan derrigorrezko hezkuntzan eta gainontzekoak, hau da, %26,5 A ereduan. 3-5 urteko umei dagokienez, gurasoen %91,5ek matrikulatu dituzte seme-alabak euskarazko ereduatan. Iazko datuekin alderatuta, D ereduak %3,3ko igoera izan du. Igoera horrek berebiziko garrantzia dauka aurten 1.800 matrikula gehiago egin direla kontuan hartuta, batik bat, etorkinen seme-alaben matrikulazioaren eraginez.



Euskara teknikari eta zinegotzientzako trebakuntza ikastaroa



Udal mailako hizkuntza politika bideratzen laguntzeko ikastaroa aurkeztu zuten Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta EUDELeko ordezkariak irailaren 15ean egindako prentsaurrekoan.

Aurkezpena EUDELen egoitzan izan zen. Udaletako zinegotziek eurek eskatuta antolatu dute ikastaroa eta, batez ere, zinegotziei eta hasi berri diren euskara teknikariei zuzenduta dago. Helburu nagusia euskara arloko zinegotziei edo/eta teknikariei hizkuntzaren normalizazioaren inguruan hartu beharreko erabakiak hartzeko irizpide nagusiak eskaintzea da.

Ikastaroa doakoa da eta Internet bidez edota CD-ROM euskarriaren bidez egin ahal izango da. Lau modulutan banatuta dago eta modulu bakoitza 12 ordutan egiteko modukoa izango da. Hona hemen lau moduluak:

- Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa
- Euskararen estatus juridikoa
- Euskara biziberritzeko plan nagusia
- Euskara biziberritzeko plan nagusiaren garapena udaletan

Aurkezpen saioa urriaren bigarren hamabostaldian izango da eta saio horretan materiala banatzeaz gain, material hori nola erabili behar den ere azalduko da. Ondoren, partehartzaileek bi hilabete izango dituzte ikastaroaren edukiak lantzeko eta abenduan, Gabonak baino lehen, aurrez aurreko bigarren saioa izango da (4 ordukoa), ebaluazioa egiteko, iritzia emateko, zalantzak argitzeko eta agiriak banatzeko.

Udal-mailan hizkuntza-politika bideratzeko oinarrizko ezagutza

Conocimientos básicos para la implantación de políticas lingüísticas a nivel municipal



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS





Laburrean...

Euskarazko filmak zinema-aretoetan ikusgai

Aupa Etxebeste! azken hamabi urteotan euskara hutsean egin den lehen film luzea grabatzen ari dira Asier Altuna eta Telmo Esnal. Euren lehen lan luzea da itxurakerien eta handinahikerien inguruan egindako komedia hau eta 2005eko udaberrian estreinatzeko asmoa dute. Euskarazko bertsioa estreinatu ondoren, gaztelaniazko azpitoluduna eta gaztelaniaratua ere aurkeztuko dituzte.

Aupa Etxebeste! filmaz gain, beste film bat ere ikusgai izango dugu laster, 2005eko uda baino lehen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* grabatzen hasteko asmoa baitago.

Euskararen etxea Bilbon

Bilboko "Euskararen Etxeak" aurten irekiko ditu ateak. San Inazio auzoan dago etxea eta bertan euskara sustatzeko lanean ari diren hainbat talde batuko dira. Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak bultzatu dute proiektu hau eta elkarten egoitza izateaz gain, beste hainbat jarduera ere izango dira eraikinean, besteak beste, interpretazio zentroa eta mediategia.



Ongi etorri !

Uztarri Kultur Taldeak Ongi etorri izeneko glosarioa argitaratu du euskaraz, gaztelaniaz eta hassenieraz. Uda garaian Euskal Herrira etorri diren Saharako umeentzat eta euren etxeetan hartu dituzten familia euskaldunentzat egin dute, batez ere, hiztegitxoak eta helburua bi komunitateen arteko harremanak erraztea izan da. Glosarioak eguneroko bizimoduan erabiltzen ditugun 600 hitz eta esaldi labur batzen ditu.

Horren harira, esan, laster argitaratuko dela Alkarbidereen bidez zabalduko den Etorrientzako hiztegia ere. Bizkaiko hainbat udalerritan banatuko da hiztegia, guztira 10.000 ale inguru banatuko dira, zenbaitzuetan gizarte zerbitzuekin lankidetzan.